

Goi Mailako  
Lanbide  
Heziketa

Gizarte eta kultur zerbitzuak  
eta komunitatearentzako  
zerbitzuak

# Gizartzeko integrazioa goi mailako teknikaria



Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra



Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtsa

El FSE invierte en tu futuro  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA

# Gizartzeko Integrazioa goi mailako teknikaria Zure etorkizuneko bizibidea

Heziketa ziklo hau amaitzen duzunean, honako lanbide-jarduera hauetan aritzeko kualifikatuta egonen zara:

## Autonomia pertsonal eta sozialeko trebetasunen hezkuntza

- Gizarteratzeko esku-hartzeak programatu, antolatu eta ebaluatzea.
- Esku-hartzeak garatzea autonomia pertsonal eta sozialeko trebetasunak trebatu eta eskuratzeko.
- Komunikazioko sistema alternatiboak ezarri, egokitu eta aplikatzea.

## Bitartekaritza komunitarioa

- Identifikatu eta zehaztea esku-hartzea eginen den testuinguru sozialeko ezaugarriak eta premiak.
- Aurre hartzea pertsona, eragile eta gizarte-talde ezberdinen arteko gatazkei.
- Gatazkak kudeatzeko prozesua antolatu eta abiaraztea.
- Bitartekaritzaren balorazioa, jarraipena eta hedapena egitea, gatazkak kudeatzeko baliabidea den aldetik.
- Genero-ikuspegia txertatzea esku-hartze sozialeko programetan

## Desgaitasuna duten pertsonak laneratzea

- Gizarte eta lan arloetako eta heziketako baliabideei buruzko informazioa kudeatzea eta lanpostuen azterketak egiten laguntzea, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeari eta laneratzeari begira.
- Esku-hartzeak burutzea desgaitasuna duten pertsonak landu dezaten nola eskuratu eta garatu gizarte eta lan arloko trebetasunak.

- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratze prozesua babestea.
- Erabiltzailearen gizarteratzearen eta laneratzearen jarraipena egitea enpresarekin, erabiltzailearekin berarekin eta haren ingurune pertsonalarekin.

## Gizarte eta hezkuntza arloko sustapena eta esku-hartzea desgaitasuna duten pertsonekin

- Gizarte eta komunitate arloko baliabideak hauteman, sortu eta erabiltzea, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak egiteko desgaitasuna duten pertsonekin.
- Desgaitasuna duten pertsonen laguntza antolatu eta egitea programaturiko jarduerak burutzean.
- Antolatu, garatu eta ebaluatzea desgaitasuna duten pertsonak aisialdiko esparruetan sartzeko prozesuak.
- Desgaitasuna duten pertsonen estrategia kognitibo oinarritukoak eta alfabetizazio teknologikoa lantzeko modua antolatu eta garatzea, maila goragoko profesionalekin elkarlanean.
- Desgaitasuna duten pertsonen familiekin jardutea eta haiek orientatu eta babestea, maila goragoko profesionalekin elkarlanean.

## Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako arreta ikastetxeetan

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako hezkuntza-programak gauzatzea norberaren erreferentziako ikasgelan eta ikastetxeko tutorearekin eta/edo diziplinarteko taldearekin elkarlanean.
- Autonomia eta higiene pertsonaleko programak abiaraztea hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen garbitasunari dagokionez, ikastetxeko diziplinarteko taldearekin elkar harturik.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

[www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional](http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional)

# Gizarte eta kultur zerbitzuak eta komunitatearentzako zerbitzuak

## Komunitatearen dinamizazioa

- Komunitateko eta herritarren partaidetzako esku-hartzeen eta proiektuen plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea, komunitate edo eskualde bat osatzen duten eragileek garaturikoak direnean.
- Komunitateko proiektu eta jarduketan komunikazio- eta hedapen-estrategiak ezartzea.

## KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Zure lanbidean pertsonendako zerbitzuen sektorean jardungo duzu: laguntza eta hezkuntza arloetan, etxearen kudeaketarako sostenguan eta babes psiko-sozialean; eta komunitaterako zerbitzuen sektorean: desabantaila soziala duten talde eta pertsonen arreta psiko-sozialean, bitartekaritza komunitarioan, lan-munduratzeko eta laneratze arloetan; aukera berdintasunaren sustapenean eta genero indarkeriaren biktimen eta haien seme-alaben eskubideen defentsan.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Prebentzioko eta gizarteratzeko programetako teknikaria.
- Askotariko egoitza-ekipamenduetako hezitzailea.
- Desgaitasuna duten pertsonen hezitzailea.
- Familia-langilea.
- Familia-hezkuntzako hezitzailea.
- Tutoretzako laguntzailea.
- Zentro irekien monitorea.
- Gizarteratzeko teknikaria.
- Hezkuntza-laguntzako espezialista.
- Hezkuntza bereziko hezitzailea.
- Hezitzaile teknikaria.

- Teknikari espezialista I (Gizarteratzailea).
- Teknikari espezialista II (Hezkuntza).
- Desgaitasuna duten pertsonen hezitzailea.
- Oinarrizko mugikortasuneko teknikaria.
- Lan-munduan txertatzeko teknikaria.
- Lan-munduan txertatzeko eta/edo laneratze bitartekaria.
- Lan-munduan txertatzeko eta/edo laneratze dinamizatzailea.
- Oinarrizko hezitzailea.
- Komunitate bitartekaria.
- Kultura arteko bitartekaria.
- Auzo eta komunitate bitartekaria.
- Lan prestatzailea.
- Laguntza bidezko enpleguko teknikaria.
- Laneko laguntzako teknikaria.
- Errehabilitazio psiko-sozialeko monitorea.

## ZIKLOAREN MODULUAK

- Trebetasun sozialak.
- Lehen sorospenak.
- Esku-hartze sozialaren testuingurua.
- Gizarteratzea eta laneratzea.
- Autonomia pertsonala sustatzea.
- Komunikazioko sistema handigarriak eta alternatiboak.
- Esku-hartze sozialerako metodologia.
- Ingelesa I.
- Bizikidetzako unitateendako arreta.
- Komunitate bitartekaritza.
- Hezkuntza arloko esku-hartzea sostengatzea.
- Gizarteratze proiektua.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Lantokietako prestakuntza.